

Junta de Instrucción Pública

BARNEKO ARAUDIA

====

I

W. Elizalde

LANBIDEA

- 1.- Soñtarauak lenbiziko buruan Sail bakoitzari egotzitako arloa, al dan eragifiz ta ibeirik gabe, okuntzatu dedin, sailkideak beingozko batzordeka lanean diardukete, elburura ekiñik.  
*ta elkar-yokerakoa*
- 2.- Eliztiari buruz. Iker-sailaren batzordeak daitezke; euzkel-itzen aotsetakoa, tankerakoa; euzkeliztiaren arau oro azterenez artu ta zeatz garbailtzeko.  
Iztegiari buruz. batzorde biltzaleok bitez: toki ta giza-izenetarakoa; anbiola ta esakunetarakoa; yakinbidetan, antzearenetan (antzerketan), lugintzan, ola-lanetan, erustetan (folklorean) eta edotariko bizipidetan oi diran itzetarakoa; mintzo bizian ezpañez-ezpain oi dabilzanetarakoa; ta azkenez, euzkel-atlasa atontzekoa.
- 3.- Sail Yagolearen batzordeak arazo auetan bana ari ~~kixxxx~~ bitez; euzkel-idakuntza piztu ta eragiten; irakasgoan eta edozelako agerkeratan euzkera ~~babesi~~ ta zabaltzen; erdel-gutunik egokienak euzkerara itzultzen; ta erabatetsuk euzkera euzkeldun ardentzako adifiona gertutzen.
- 4.- Batzorde bakoitzean izan bea' dira: buruzagi ta zado'rlari bana, bick euzkeltaiñak eta sailkideen autarkiz artarakoak; bizpairu urgazle; ta, Euzkeltzaindiaren baimenaz, batzordeak bere lanerako adifontzat ~~kaxxxx~~ leritzazkiken iñondikako eraskin guziak.
- 5.- Batzorde guzien lana bakuntzeko bertaraxe yo dedin, **Sail bakoitzak** bere buruzagi ta zado'rlaritzat sailkide bi autu bitza, Euzkeltzaindi osocaren bayetza ayentzat iritxi bea' dualarik.
- 6.- Sailburu ta zado'rlaria batzordeburuekin beingozko Sail-Onubatza osotuko dute.
- 7.- Sail Onubatzok berena ere dute, Sail bakoitzaren ibilpidea, erabaki, asmo ta bea'ak Euzkeltzaindi osocari, oiko batza'etan, **agertzean.**
- 8.- Dan o'ren erazpiderako, Sail-batza'ra Onubatzak, leritzakenean, bildu dezake, Euzkeltzaindiaren soñtarauko batza'ra baño len.

II

OIKO BATZARAK

- 9.- Batza'etako maipuruan Euzkeltzainburua ya'ri bedi, ta aren ezenean, sailbururen bat.
- 10.- Euskeltzainburuaren ezker-eskuin sailburuak beude, ta auen u'ren-goan Euskeltzaindiaren zado'rlaria.
- 11.- Zado'rlaria ez legokenean, Euskeltzainburuak aren ordelaritzat Sailbururen bat eza'riko du.
- 12.- Batza'aldia asitakotzat Euskeltzainburuak ageriko du, esanik; "Aita ta Seme ta Gogo guren Jaungoikoaren izenean, bere Ama Andre Miren'en magalpean, eta Euskeleriarren alderako, batzaldian gaude". Atsa'ritz au orok zutik bentzute.

- 13.- Batzaréetako yardunbidea auxe bedi; arestiko batzaldiaren ageria; Saiiletako baten arazo ta buruzpideak; euskeltzainketz naiz orko urliketz, Batzarari letorzkiokeen buruzpide, txosten ta ikaslanak; diru-goraberak, eta bear bada utsune-aitora ta ornibeara.
- 14.- Batzaldia amaitzeko, Euskeltzainburuak "Gloria Patri..." esanda, besteak zutik darantzuteke.
- 15.- Oiko batzarúrena uríaren lenetik uztailaren azkenera izango da.
- 16.- Batzara egiteko, zazpi euskeltzain bederen bildu bear dira; uríago izandakoan, beingozko erabakirik ezin daiteke.
- 17.- Euskeltzaindiak aintzakotzat leritzazken buruzpidetarakoan, euskeltzain oro bildu bear dira; ta bertara norbait eziñean, utsa zuriturik, bere aburu ta autarkia idatziz azalduak batzarari bidali bear dizkio.
- 18.- Autaldiratzean, euskeltzain bakoitzak eskubidea du orduko arazoa uréngo batzaldiraño geroratzeko. Ara-ezkero, baña, geroratzte beririk ezin legoke, geyenen autarkiz izan ezik.

## III

KISALDA

- 19.- Bi urterakoak dira euskeltzain-kisa berezi guziak; oro, ordea, lengo lepoetara beriz itzulgarriak.
- 20.- Kisalda ori Uztailan, bigarren urteko azken batzaldian egingo da, oiko arazoak burutu-ondoa. Kisaldun berriak, ostera, uréngo Urrian asiko dira berenetan, lenbiziko batzalditik.
- 21.- Kisa bakoitzerako autaldi bana bear da; ixilekoa gero, ta autarkirik geyenetaz.
- 22.- Lantzaro beria asitakoan, lengo zadorlariak bere epean eginda-koen azalbena irakuriko du, ta orobat diruzafiak, bere yardunbidea erakutsirik. Bereala euskeltzainburu zanak, agur bat egin ondorean, buruzagi berriari aulkia utziko dio. Buruzagi berriak, dakarzken asmoak agertzen, itzaldi bat dagike; ta besterik gabe batzara bukatuko da.
- 23.- Artara, ta Gogo Guren eske lentxeago bear dan Mezatara deituak izango dira Aldundiak, bertako Udala urgazle ta dedurako lagun guziak, baita Eusko-Ikaskuntza'koak ere; bazkun aunen buruzagia euskeltzainburu beriarekin maipuruko izan bear dirala.
- 24.- Sail-onulariak uréngo batzar oikoan aldatuko dira.
- 25.- Euskeltzaindi-kisatan sortutako utsuneak bi urteurenean berean ornitu bear dira; lenengo urtekoak, yabegotz; bigarrenekoak, apapukotz Utsuneok uréngo batzar oikoan euskeltzainburuak iragariko ditu, euskeltzaindiak geroxekoan bete ditzaten. Berebat egin bear da Sail-kisatan utsunerik ba'lego.

## IV

EUSKELTZAINDIRAKO ATOTSA

- 26.- Euskeltzain bat il, naiz bere laintan beingotz ezin ari danekoxe, Batzarak aren tokia utsik dagola aitoritu ta agirian iragariko du. Iñor ere, ordea, ezindutzat ez da aitoritu bear, artarako autaldi ixilekoa Batzarak egin ezik.

- 27.- Utsunea betetzeko, bi ilabeteko epea izango da. Inongoan, ifongo iforen beretzako, naiz iru euskeltzain iforbaitentzako eskabideak artuak izango dira; iru orék berean magalpekoaren bayetza yakin bear dutelarik.
- 28.- Eskabideok, ototsgayaren ituin ona dagertela, idatziz egin bear dira; ta ayekin Batzarak artu bear ditu lagungaya euskeltzaingorako laintzat lerakusketen idazki guziak, naiz argitaratuak, naiz itzalpekoak.
- 29.- Utsune-~~ezker~~oko ilabetea igarota, lenbiziko batzar oikoan eskabideok irakuri bitez; ta epeko azken batzar oikoan tokia nori emateko autaldia egingo da.
- 30.- Autaldia ixilekoa bedi; piko' zuri-beltzeka, lagungai bat baño geyagorik aukeran ezpa'dator; izen banako txartelka, geitsuago izan ezkerok.
- 31.- Txartelik geyenak izen berberagana ezpa'lira bat etori, autaldira beriz bear, txartel-kopururik ugariena bildu luketan izenak, ala, orélako bat bakarik izan ezkerok, beraxe ta uréngo kopurukoak arakoturik besteak aldentuta.
- 32.- Bigaren autaldi orék ifori ere autarkirik geyenak eman-ezik, irugarén autaldia, azkenekoa geroklengoxearen arauz egin bedi, autarkik iforengana makurtu ote diranentz. Bayezkoan, arako urlia izango da garai: ezezkoan, autarki gorenetan batzuk berdindu-ezkerok, zotzetara igaro bear; bestela, tokia utsik geldi bedi
- 32.- Zadorlariak autuari kisaketz idatziko dizkio bai aukera, baita euskeltzaingoa leporatzeko epea ta eginbearak. Aunek, beriz, bere bayetza ogei egun baruan Euskeltzaindiari igori bear dio.
- 33.- Epe ori sortziñ ilabetekoa daiteke. Lenengo seirak lagun beriak artu ditzake, euskeltzaingorako sarpidetzat irakuri bear duan itzaldia, nayan luken edozertaz diardukelarik, atontzeko. Beste biak, erantzun bear zayona gertu ta idazteko, euskeltzainburuak, naiz, aren ordez, beste euskeltzain batek, ar bitza. Idazkiok, gutun baten ezarita, irari bear dira, euskeltzain biren iritziz adifonak izan ezkerok, sartzerako Batzaran aurki daitezken guziei banatzekoak.
- 34.- Ageri ta yaitsu batzar ori izan bear da. Asibidetzat, batzararen txedea zadorlariak laburki iragariko du. Datxikola, bi euskeltzain atotsgayaren bila irtengo dira, ta, batzarategian sartuta, arentzako mairano lagun bebilkiok. Buruzagiak itarantzun lickenean, asiko da lagun beria bere itzaldia irakurtzen. Aren andorean, erantzun bear dionak, berea ere irakuriko du. Ta oro zutik daudelarik, euskeltzainburuak oraindano lagungaya euskeltzaintzat aitoruko du; ta ageria ta ezautalua emanik, eskua eskuz ertsiko dio; anai agur berauxe beste euskeltzain guziak ere dagoitelarik.

## V.

Euskeltzaindiaren argitarakoak

- 35.- Irutariko idazkiak argitaratuko ditu Euskeltzaindiak;  
Urteoro, bera gara ta egindakoen Oroikaria;  
Urte baruko itxanetan, Euskeltzaindian zertutako, naiz lekoretik artutako ikerpen, erizte, ta txostenak biltzeko Erola;  
Norzik bein, Euskeltzaindiaren aginduz, idatzitako, ala bere txederako egokitizat enartutako gutunak.
- 36.- Kisaldarako batzar oikoan, beingozko batzorde nasi bat autetsi; bear da,  
Erola bere gain yartzeko.
- 37.- Euskeltzaindiaren edozein idazkik bere sendatza bear izango du.

VI

BARNEKO YAURBIDE TA AREMANAK

- 38.- Aolku berezi baten kisan egon bea' da barneko yaurpidea. Aolkariok daitezke euskeltzainburu, zado'rlaria, ta bi sailburuak.
- 39.- Berentzako dute;
  - a) Euskeltzaindiaren erabakiak, ikasgo ta otzurrekoak izan ezik, beteraztea.
  - b) etxeko langela ta angeluetako ibilpide on ta ganorakoa;
  - d) etxea, ta bertako langalu ta atuxak txukun ta apain eukitzea.
- 40.- Dirutza ere aolku berezi baten kisa egon bea' da; aolkariok, euskeltzainburua, zado'rlaria, bi sailburuak eta diruzaiña diralarik.
- 41.- Aolku orek bere gain du;
  - a) Euskeltzaindiari diruzaiñak urteoro aurkeztu bea' dizkion aremanak aztertu ta ebaztea; baita, Aldundiak emandako orniagatik, egin bea' dien zeazkundera ere;
  - b) elaztari ta saltzaiñekin itunketan ibiltzea, Euskeltzaindiak argitaratu lituken guzietaz;
  - d) diruzaiñak bea' dituan ordain-aginduak gertutzea.
  - e) Euskeltzaindiak ekunik ala bestela leukaken dana bere kautan artzea; euskeltzain guziak oretan argituz.
- 42.- Itxumustuan ta ziztan eldutako ordainbea'etan, Aolkuak berez erabaki dezake, urengo batza' oikoan Euskeltzaindiari dana yakiñ-eraztekotz.
- 43.- Izkimizkietan diruzaiñak bere kabuz erabaki beza, Aolkuari gero egindakoen be'ri eman bea' diola.

VII

EUSKO-IKASKUNTZA'REKIKO YARDUNBIDEA

- 44.- Euskeltzaindia Eusko-Ikaskuntza'ren alaba da; baña, Sortarauz, beretzako metxean bere buru ta osorik yarei ibiltzekoa.
- 45.- Beraz, Eusko-Ikaskuntza'ren ~~artezkari-tarte~~ <sup>n casti</sup> ~~bera~~ ~~buruzagi~~ euki bea' du, bere zuduari dagokion atanda.
- 46.- Artarako, Eusko-Ikaskuntza'ren artezkari-tarte<sup>n</sup>an bere buruzagi ta zado'rlaria exeri bea' dira.
- 46.- (beriz ta apapukoan). Arestixeko ataltxoa kuku geldituko da, Oñati'ko Batza'arak bere artezkadetzat aututako euskeltzain bienak egingo duan arteraño.
- 47.- Eusko-Ikaskuntza'ren beste alabak, bai engoitik diranak, baita geroenean lirakenak ere, bakoitza bere metxean, iztegia atontzen Euskeltzaindiari lagun eto'ri bea' zazkio.
- 48.- Euskeltzaindiak, ostera, bere urgazia damayeke, ayen argitarakoak euskeraz ipintzeko.

Basses-Pyrénées



Mr. le Dr. Broussain,  
de l'Académie Basque  
Maire de

Hasparren

EXCMA. DIPUTACIÓN DE VIZCAYA



Junta de Instrucción Pública



Broussain-Solagoity jaunari

Hasparen'en

Gazteiz (Vitoria), Azaroko 30'an


Ene jaun eta aizkide ona: Zure entzutea aspaldirik neban, baña zuri agur-egiteko zoria (ta zori ona gañera) oraintxe eldu yat; beraz, anaikor agur ~~bera~~ bero bati igoitzen dautzut, eta auñerantzean zurekin eta zu bezelako euzkeldun zintsoekin sariko artu-emonak izatea gura neuke. Atsegin biziaz igaro gendun Oñati'ko Aste nagosi aaztu-eko-  
 ra! Antxe agurtu genduzan zuen aldeko euzkeldun leyal batzuek: Dutour-  
 nier (Sara'ko Endorea), Ybañegarai kementsua, Vic yauna, Decrept eta ain-  
 itz euzkeldun on. Oroekaz anaitasun bizkoñean izan giñan. Eurok ere (us-  
 te dodanez) gugandiko oroipen gozoa eroan eben. Gure poza aundiagoa izan  
 zan, Aleman madarikatuak orduantxe azpira yausten asi ziralako (bai-daki-  
 kezu, noski, gu euzko-abertzaleok edo euzko-nacionalistak Alkartuben alde-  
 koak beti izan garala). Izango dira ondiño zuek gustiok agurtu ta zuen es-  
 kuak estutzeko aldi garayak!

Nire itzaldiok (Oñati'n egin nebazanak) ez dira oraindaño argitara urten; baña, ardura bagarik zagokez, urtengo diraneko gogorik onenaz igori-  
 ko dautzudaz. Oraingoz, "Landibar" digartzut, arean, aurten argitaratu do-  
 dan euzko-ipuya, euzkotasunez bete-betea, nire euzko-biotz gustia, ixuriaz,  
 artu daun ontzia! Atsegin bekitzu.

Gu, España'azpiko euzkotarok, usteddodanez, azkatasun edo "indep-  
 dencia2"- bidean gagoz. Gura geunke, Yainkoaren laguntzaz, España'ri osti-  
 kada bat emon, eta lau probintziok Estadu azkatu bat gure artean egin!  
 Ez gabiltz ondo espñañekaz; ez gara gure artean ondo konpontzen. Aek,  
 aleman-zaleak; gu, ostera, alkartubenak; eta gustia orelaxe; aek "baltz"  
 ba-diño, guk, ostera, "zuri"; eta ez dago itun-biderik eurokaz.

Agindu, ene aizkide ona, nai aña Jel'pian zure lagun auni,

*Sleizalde'tar Koldobika*



22

Basses-Pyrénées



Mr. le Docteur BROUSSAIN

Maire de

H A S P A R R E N

Elizalde (Vitoria)  
Diciembre 1918



Isaac Julián Antonio de Urrutia

Presbítero-Capellán

Bermeo

Vizcaya

1920 - Urtahila - 1<sup>a</sup> an

Broussain yaun eta aizkideari

Aguir, aizkide ta laqun on-on ori! : Egubari on, leubiziz,  
xuri ta xure sende ta etpeko justici! Urtebari xoriantsua demas-  
kula justizi Goiko-Taun onak.

Bai-ete-dakien luzaroen Madrid'en izan narzala. Kortzi-  
-amot egumerako yaun, eta betogetabat egun egun! Beraz, gure  
Akademia edo Elezeindi auzegar bai gutxi dodaz.

Dakudanez, laster beste batzaldi batera deitzen gaituzte.

Ta idazkera edo Ortographe'traz jardungo ete-degu. Uste det,  
izki baten baharik izango dala estabaida: x ala š. Bai-dakien  
Askue'k arken on eusten duala; ostera, enparan justioak (ala  
geyenoak, Bizkai ta Ejiptuskoa'n beintzat), leuengoa: x. Nire abuzer,  
x artzen espa'dogu, uto andia egingo degu ta euzkeldun geyenan  
artean gure narziqoa galduko degu, ez gaitu inork paraituko-ta.  
Beraz, aibertu nekez eraldu degun Akademia on laster eroko  
litzake.


Au dala-ta, xinez ta biotzez eskatzen dirut guk degun  
abuzer auzetara zu ere eldu xaitzala. Agur, Olabide, Eguar-  
kitza, Intzagarai ta ni auzetan gaude. Uste det Campion ere  
abuzer auzetara eratoriko dedala. Zu ere bertara ba'xator, arden,

Basque Language Institute  
Basque Language  
Basque  
Basque

Landeretxe garaino ere eragin dizagokera, gutxiak aburu batan  
eldu gaitzantzat. Gai on artez erabaki exhero, bestectan eragoz-  
penik ez da izango.

Bestetik ez gaitzoz. Aizindu gura auzo, Jel' piam,  
gure auzkide ta lagun

Ileizalde' ta Koldobika' ri




Basses-Pyrénées



Mr. le Docteur Broussain

Maire de



Hasparren

